


Helduen Literatura

Annabel
Kathleen Winter
Erein, 2013



Gender trouble edo sexu/generoari bueltaka

ABUZZTUAN, oporretan egoteak ematen dizun pausari esker, konturatu nintzen sexu-generoaren gaia benetan dela garai honetako kezka sozial garrantzitsua. Alde batetik, prentsa idatzian aspaldiko terminoa zekarren “Alemaniak hirugarren sexu bat ‘sortu’ du” titularra zuen berria irakurri nuen, eta beste alde batetik, Kathleen Winter-en *Annabel* elaberriaren itzulpena argitaratu zen gurean (2010ean ingelesez plazaratua).

Kanadako herrixka batean jaio den protagonistaren barne gatazka eta bere inguruan biziko duen gatazka soziala kontatzen dizkigu nobelak. Wayne deitzen da, baita Annabel ere. Gizon bezala sozializatzen da, baina “emakume bat du barruan, ezkutuan” liburuan irakurri ahal dugunez. Homosexuala da? Galdetuko diote irakurle batzuek euren buruari. Ez, ez da. Transexuala da? Galdetuko dute beste batzuek. Ezta ere. Intersexuala da, jaiotzean organo sexual femenino eta maskulinoak zituen gorputzean.

Lehenago esan bezala oso gaurko gaia, sexu-genero sistemarena eta honen muga eta arauena, eta horregatik hartu nuen gogoz liburu honen irakurketa. Baina... zer gertatzen da literatura komertzialak, best-seller izateko anbizioz idatzitakoak, horrelako gai bat jorratu nahi duenean? Ikus dezagun, *Los hombres que no amaban a las mujeres* edo *Cincuenta sombras de Grey*, adibide ezagunak biak, oso liburu salduak izatera heldu dira jorrotutako gaiaren gaurkotasun-berritasun horren ondorioz, baina... nolakoa da gai

hauen trataera? Zelan planteatzen dituzte emakumeen kontrako biolentzia edo harreman (sexual) sado-masokistak? Gatazka agerian uzten dute, arazo bihurtzen dute?

Annabel irakurtzean fikziozko pertsonaia intersexual baten bizitza ezagutuko dugu, baina ez digu berak hitz egingo, izan ere, narratzaile orojakilearen begiradatik ikusiko dugu, distantziatik. Bere gurasoen sufrimendua ere oso presente izango dugu. Bere harreman afektibo-sexualak azalekoak eta urriak izango dira, heterosexualitatea eta maitasun erromantikoa auzitan jarriko ez dituztenak. Ikuspegi moralista agertuko zaigu ongia/gaizkia eta egia/gezurra behin baino gehiagotan agertuko baitira bere gorputza hizpide denean. Sexu/genero sistemaren binarismoa ere mantenduko da, “gizona edo emakumea izatea” erabaki beharko duelako eta genero identitate eta *performancea* ez direlako kritikoki bereizten gizonak horrelakoak eta emakumeak beste-lakoak direla errepikatzen baita behin eta berriro.

El pozo de la soledad lesbianismoa tragikoki irudikatzen zuen nobela gogorarazi dit, eta gaiari buruz idaztea erronka polita dela uste dudari arren eta meritu hori aitortzen diodan arren, gai honi buruz interesa dutenentzat XXY pelikula gomendagarriagoa dela uste dut. ■

Amaia
Alvarez Uria



ANDRA MARI
restaurant

Elexalde Auzoa, 22 • Galdakao, Bizkaia
Tel.: 94 456 00 05 • www.andra-mari.com

